

Topalekua

46zk. 2008ko apirila

abril 2008 - n.º 46

pág. 1 y 2: UPV/EHU-ko Gizarte Kontseiluak 2008 eta 2009 bitartean 12 proiektu berri garatzea onartu du

pág. 3: Hezkuntza Sailak Unibertsitatearen 2007-2010 II Plana aurkeztu dio bilkurari

pág. 4: EHU/UPV-ko Gizarte Kontseiluak irakaslegoari esleitu beharreko ordainketa-osakin gehigarriak onartu ditu

HEZKUNTZA SAILAK UNIBERTSITATEAREN 2007-2010
II PLANA AURKEZTU DIO BILKURARI

UPV/EHU-ko GIZARTE KONTSEILUAK 2008 ETA 2009 BITARTEAN 12 PROIEKTU BERRI GARATZEA ONARTU DU

Apirilak 17an, Bilbon, ospatu zen UPV/EHU-aren Gizarte Kontseiluaren Bilkurak onartu zuen 2008 eta 2009 urteen bitartean 12 proiektu gauzatzeko asmoa, bere Plan Estrategikoaren esparruan, non unibertsitatearen balioak zabaltzeko Foru Publikoaren sorrera, Unibertsitatearen zerbitzuen etekinaren adierazleen identifikazioa, UPV/EHU-ak sortutako ezagutzaren emaitzak transferitzeko prozesua martxan jartzea eta berrikuntzarekin, ikerketarekin eta ezagutzekin zerikusia duten giza beharren identifikazioa nabarmentzen diren.



Sailburuordea eta Unibertsitate Zuzendariak aurkeztu zituen 2007-2010 Unibertsitate II Plana

(2. eta 3. orrietan jarraitzen du)

UPV/EHU-ko GIZARTE KONTSEILUAK 2008 ETA 2009 BITARTEAN 12 PROIEKTU BERRI GARATZEA ONARTU DU

Apirilak 17an, Bilbon, ospatu zen UPV/EHU-aren Gizarte Kontseiluaren Bilkurak onartu zuen 2008 eta 2009 urteen bitartean 12 proiektu gauzatzeko asmoa, bere Plan Estrategikoaren esparruan, non unibertsitatearen balioak zabaltzeko Foru Publikoaren sorrera, Unibertsitatearen zerbitzuen etekinaren adierazleen identifikazioa, UPV/EHU-ak sortutako ezagutzaren emaitzak transferitzeko prozesua martxan jartzea eta berrikuntzarekin, ikerketarekin eta ezagutzeekin zerikusia duten giza beharren identifikazioa nabarmentzen diren.

2008an Kontseiluak ondorengo proiektuak burutuko ditu:

- Unibertsitatearen balioak zabaltzeko Foru publikoaren koordinazioa.
- Herri administrazioen tituludunen beharrak identifikatzea.
- UPV/EHU-ren baliabide fisikoen zenbaketa egitea.
- Unibertsitatearen zerbitzuen etekinaren adierazleak identifikatzea eta aztertzea.
- Kontseiluaren Plan Estrategikoaren Berrikusketa.
- Laguntza logistikoa ezartzea.

2009ari dagokionez, hauek dira onartu diren proiektuak:

- UPV/EHU unibertsitatearen antzeko ezaugarriak dituzten unibertsitate-ereduak identifikatzea eta aztertzea. Sistema, Campusa, Ikastetxeak... kalitateari eta kudeaketa-sistemari dagozkien lerro estrategikoei laguntzeko.
- Gizartearen beharrak identifikatzea berrikuntzari, ikerketari, gaitasunei, ezagutzei eta bizitza osoko prestakuntzari dagokienez.

- Ikasleek enpresetan egiten dituzten praktikak hobetzeko baldintzak identifikatzea.
- Beste titulu batzuetan gaitasunak definitzea eta jadanik definituta daudenak sustatzea.
- Sortutako ezagutzaren emaitzak (ikerketa) transferitzeko eta ikertzaileak zein haien jarduerak komunikabideetan gehiago agertzeko prozesua sortzea.
- Unibertsitatearen gizarte betekizuna eta haren ekarpena Euskal gizartean zein den jakinaraztea.

Gainera, Bilkurak 2009 eta 2010 bitartean burutzeko beste bi proiektu aukeratu zituen: Unibertsitateak gizarteari zor diona garatzen laguntzea eta UPV/EHU-aren neur daitezkeen adierazleak ezartzea,

Aldi berean, eta aurtengo jardueran, Kontseilua 2007an bukatutako lau proiektuetan ari da lanean, Unibertsitateko Jardueren Urtekari Estatistikoan, unibertsitateko ikasleek lortu beharreko Gizartearen Eskakizunen Azterketan, UPV/EHU-aren Produktuen eta Zerbitzuen Katalogoaren Marketing-planean eta Unibertsitateko Enplegu Eskaintzaren Behatokian, hain zuzen ere.

Aipaturiko proiektuak, bai 2007an bukatutakoak, bai 2008rako zein 2009rako aurreikusitakoak, 2007-2010 Gizarte Kontseiluaren Plan Estrategikoaren zati bat dira, haren helburuak Unibertsitatearen irudia sendotzea, goimailako ikaskuntza publikoaren presentzia areagotzea eta unibertsitatearen eta gizartearen arteko loturan Kontseiluak duen betekizuna sendotzea direlarik.



HEZKUNTZA SAILAK UNIBERTSITATEAREN 2007-2010 II PLANA AURKEZTU DIO BILKURARI

Apirilaren 17ko Bilkura berean, Eusko Jaurlaritzako Unibertsitateen Zuzendaria den Francisco Juaristik aurkeztu zuen 2007-2010 Unibertsitate II Plana Gizarte Kontseiluaren aurrean, Euskal Unibertsitatearen Sistema planifikatzeko eta finantzatzeko tresna Eragilea. Indarrean egongo den lau urteotan 1.248 milioi euro emango dituen unibertsitate publikoa finantzatzeko.

Unibertsitate-plan horren helburua Euskal Unibertsitateko Sistema Goi Hezkuntzako Europar Gunera eta Ikerketarako Europar Gunera egokitzea da, gainera, Euskal Herriko unibertsitatea finantzatzeko esparru egonkorra sortuz, ekoizpen zientifikoa eta teknologikoa areagotzea

eta berritzea eta Unibertsitatearen eta enpresaren arteko elkarlana erraztea sustatzea, euskal ikerketa nazio artera eramanez.


Plan horri esker, Unibertsitateen eta Administrazioaren arteko erantzukizunean zerikusia duten herri baliabideen kudeaketan gardentasun maximoa eta kontrola bermatuko da.

Hezkuntza berrikuntza hori, 2007-2010 Unibertsitate Planaren beste funtsezko atal bat dena, Europako Konbergentziarako Ereduaren ikuspuntutik irakasleen prestakuntzan aztertu da, eta baita Gradu, Master eta Doktoretza programa ofizialen egokitzea ere.

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILAREN FINANTZIAZIOA UPV/EHU-RENTZAT

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA	2007	2008	2009	2010	GUZTIRA
GUZTIRA	278.527.014	301.959.117	322.119.753	345.815.924	1.248.421.808
Gastu arruntetarako ohiko diru-laguntza	242.072.333	252.801.261	263.102.260	274.286.705	1.032.262.559
Inbertsiorako Urte Anitzeko Programaren interesak	0	2.210.778	2.468.069	1.827.729	6.506.576
Kapital-gastuetarako ohiko diru-laguntza	12.000.000	12.000.000	12.000.000	12.000.000	48.000.000
Langileen kopurua handitzea (AZL eta ikertzaileak)	0	5.494.078	8.010.424	10.721.123	24.225.625
Diru-laguntza osagarria (programa-kontratuak)	10.054.681	11.453.000	14.539.000	19.980.367	56.027.048
Inbertsiorako eta Azpiegituretarako Urte Anitzeko Programa	14.400.000	18.000.000	22.000.000	27.000.000	81.400.000

UNIBERTSITATE-PLANA FINANTZATZEA



EHU/UPV-ko GIZARTE KONTSEILUAK IRAKASLEGOARI ESLEITU BEHARREKO ORDAINKETA-OSAKIN GEHIGARRIAK ONARTU DITU

Apirilak 29an Bilbon egindako EHU/UPVko Gizarte Kontseiluaren Plenoak, Euskal Unibertsitate Sistemako Kalitate eta Akreditazioaren Ebaluaketa Agentziak (Unigual) egindako banakako ebaluaketan kreditatutako irakaskuntza eta ikerkuntza merituen arabera, EHU/UPVko irakaskuntza eta ikerkuntza pertsonalari dagokion ordainketa-osakin gehigarrien esleipena onartu du.

Gizarte Kontseiluak, indarrean dagoen arabera araudiarako araudiar jarraituz (6/2001 Lege Organikoa eta Euskal Unibertsitate Sistemako Legea) aipatutako osakinak esleitu behar duen organoak, hitzarmen hau onartu du Unigual-eko Zuzendariaren ebazpenak, EHU/UPVko Gizarte Kontseiluaren akordioak eta finantziario diru-izendapenari azken hauetan bai Unibertsitateko Barne Kontrolako Zerbitzuarenak eta baita Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Saileko Administrazio eta

Gestio Ekonomikoko Zuzendariarenak buruzko ziurtagiriak, aztertu eta gero.

Aldi berean, eta 30/1992 Legean ezarritakoa betez, Kontseiluak interesatu guztiei jakinaraziko dizkie ebazpen bakoitzaren aurrean zein helegite aurkeztu daitezkeen: hile bateko epean Gizarte Kontseiluaren aurreko birjarpen errekurtsioa eta hilabete biko epean dagokion Epaitegiaren aurrean aurkeztu beharreko administrazio auzi errekurtsioa.

Azkenik, Gizarte Kontseiluak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio egokitzen jotzen dituen legezko aldaketak egin ditzala, beti ere esleitutako kantitateak aurreko erregimenaren arabera jasotakoak baino txikiagoak direnean, modu horretan kaltetutako irakasleek aurrekoa jasotzen jarraitu dezaten hurrengo ebaluaketa egin arte.



UPV/EHuko Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkuraren une bat

(3. orritik dator)

Gainera, Planak irakasleen hizkuntza-prestakuntza sustatu nahi du, euskaraz irakatsiko diren ikasgaiak areagotuko direlarik, hori baita Sailaren helburuetako bat. Gainera, unibertsitateko kudeaketan, irakasteen eta ikerketan erabiltzen diren aplikazio informatiko nagusien euskarazko bertsioa sortu nahi da.

Ikasketa osagarriak

Azkenik, Bilkurak bederatzi ikastaro osagarriren prezioak onartu ditu, hemendik aurrera hauek izango direlarik:

- “Interpretazioa”, 592,80€ (7,8 kreditu);
- “Performance eta mugimendua”, 562,40€ (7,4 kreditu);
- “Espazio eszenikoa”, 562,40€ (7,4 kreditu);
- “Ingurumen zuzenbidea”, 400,00€ (5 kreditu);
- “Interpretazioa II”, 167,20€ (2,2 kreditu);
- Garapen jasangarria. Hausnarketatik Praktikara (2. edizioa), 120,00€ (10 kreditu);
- “Genero arazoak eta Herri Administrazioan zein Enpresa Pribatuetan Berdintasun-planen aplikazioa”, 220,00€ (8 kreditu);
- “Aurrerapenak kardiologian eta Arrisku kardiobaskularra”, 1.000,00€ (5 kreditu);
- “Txartel Profesionalen berritzea. Zubiak eta Makinak espezialitateak”, 150,00€ (2 kreditu);